

## HITZARGIAK – Elkar argitzen duten hizkuntzak

### Praktikaren izena

#### INFORMAZIO OROKORRA

#### DATA:

1	<b>Izena:</b>	Xaldun Kortin, Jolastu gurekin!
2	<b>Hizkuntza</b>	Euskara (azpituduluak eta azalpenak euskaraz, espainieraz eta frantsesez)
3	<b>Lan-arloa</b> (hezkuntza, komunikazioa, irakaskuntza, aisia, administrazioa...)	0-5 urteko hezkuntza eta familiendako materiala da
4	<b>Kontakturako helbidea edo telefonoa</b>	Itziar Luri   <a href="mailto:itziar@labrit.net">itziar@labrit.net</a>   948 210 103
5	<b>Sare sozialetako kontaktuak</b> (Webgunea, Facebook, Twitter...)	www.xaldunkortin.com

#### PRAKTIKA EGOKIAREN DESKRIBAPENA

1	<b>Praktikaren azalpena</b>	Nafarroan barrena, ondare materiagabearen bilketa egin ondoren, hurrekin mendeetan zehar erabili izan diren kantuen, jolasen, formulen, ipuinen, haur hizkeraren... transmisioa errazteko proiektua.
2	<b>Praktikaren azalpenaren laburpena</b>	Nafarroako ondare materiagabetik bildutako kantuek eta kontuek (eskuekin eta behatzekin jolasteko, trostan ibiltzeko, taldean jolasteko, memoria lantzeko, lo egiteko kantuek eta ipuinak) biltzen dituen egitasmoa da. Liburu batek, musika CD batek eta ikus-entzunezko DVD batek osatzen dute. Liburuan erabileraren arabera sailkatuta ageri dira edukiak, baita haur hizkeraren hiztegia eta etxean euskara erabiltzeko gomendioak ere. DVDan bi atal daude: "Porrotxen bisita", Porrotx pailazoa Nafarroako ondarea ezagutzera etorri da eta herriz herri ibiliko da, bertako haurren laguntzarekin haur hizkeraren inguruko pasarteak ezagutzera. "Ttikiekin jolasten eta solasten" atalean, berriz, familia baten eguneroko bizitzan eduki horiek nola erabili daitezkeen ikus daiteke.  Hizkuntza baten transmisioan horren garrantzitsua diren maitasuna eta lotura azaltzeko hurrekin bereziki erabiltzen diren hitzak eta jolasak topa daitezke. (hala ere, arraro gelditzen da esaldi hau...)
3	<b>Aurrekariak</b> (Inplementazioa burutzeko motibazioa, identifikaturiko beharrak)	Nafarroako euskara teknikarien sarean azkeneko urteetan familia transmisioan egindako hausnarketa eta lanean halako beharra agertu zen. Horrez gain, ondarearen transmisioan jarduten dugunok ere bagenekien ez zela halako egitasmorik gaur egun eta behar-beharrezkoa zela gaur egungo familia gazteendako batez ere.

4	<b>Helburuak</b>	Kantuen, jolasen, formulen, ipuinen, haur hizkeraren... erabilerarako baliabideak ematea.
5	<b>Eragin esparru nagusia eta albokoak</b>	Bi hartzaile nagusi ditu, alde batetik, hezitzaileak eta, bestetik, familiak (nik alderantziz paratuko nuke...). Eskola eta eta familia zentzu gehigarrian ulertuta. (azken esaldi hori ez dut ongi ulertzen...)
6	<b>Erakunde laguntzaileak eta horien lan-arloak</b>	Euskokultur Fundazioa ondarearen bilketan, hustuketan, hautaketan eta finantziazioan, Nafarroako Euskara teknikarien sarea edukien egituraketan eta Labrit Multimedia ondarearen bilketan eta ekoizpenean ere (ekoizpenean hiru erakundeak aritu ziren, elkarren osagarri ezin hobeak izan baikin...).
7	<b>Inplementazio-epea</b>	

## INFORMAZIO GEHIGARRIA PRAKTIKA EGOKIEN FITXA

8	<b>Hedapena</b> (eragiten dien pertsona kopurua, barnekanpo hedapena...)	Lan talde eragilea lau pertsonak osatu dute. Horrez gain, hiru erakundeek bere lantaldea proiektuaren eskura jarri dute eta kasuan kasu hala ibili dira 20 bat pertsona. (Jende gehiago aritu zen, haurrak, irakasleak, hiztegia egiteko, zalantzak argitzeko...)
9	<b>Inbertsioa</b> (dirutan, denboran, pertsonetan, bestelako baliabideak...)	Proiektuak 30.000 bat euroko inbertsioa izan zuen. Horren barnean lehen aipaturako lan taldea dago barne, ondarearen bilketaren artxibategia, etab.
10	<b>Lortutako emaitzak</b>	Gaur egun 3.000 bat ale banatu dira, euskara teknikarien sarearen bidez baita liburu-denden bidez ere. Horrez gain, bada gurasoei zuzendutako ikastaro egutegi egonkorra ere ikastetxeetan ematen dena.
11	<b>Dokumentazioa erreferentziako materiala</b>	<a href="http://www.xaldunkortin.com">www.xaldunkortin.com</a> webgunean trailerrak, liburuaren aurkezpena, tailerren ??? argazkiak, formula ttikiak, abestiak... topatuko dituzue.
12	<b>Aurkezpen bideoa</b>	Porrotxen bisita atala - <a href="https://vimeo.com/90633626">https://vimeo.com/90633626</a> Ttikiekin solasean eta jolasean atala - <a href="https://vimeo.com/90633623">https://vimeo.com/90633623</a> OHARRA: jatorrizko bideoak behar izanez gero igorri ditzakegu.
13	<b>Intereseko informazio gehigarriak</b>	<a href="http://www.xaldunkortin.com">www.xaldunkortin.com</a>